


koordinazio lanak egin, eta prozesuan zehar, jarraipena eta erabaki nagusiak hartzen dituen; aholku-batzordea (Elhuyarrek teknikariek osaturikoa), lan-metodologia landu eta prozesuaren urrats desberdinetan aholkularitza eta trebatze-lanak egiten dituen; talde dinamizatzailea (prozesuan beren beregi esku hartu gura duten herritarrek osatua), diseinu-fasean zehar, orientabide operatiboaz, lan-taldean jarraipenaz, dinamizazio-lanez eta herritarrekiko harremanaz arduratzen dena; eta, lan taldeak (Berriz eta Lezoko herritarrek eratua), herriko sektore estrategikoak (hezuntza, iritzi publikoa, elkarteak, ostalaritza eta merkataritza, zerbitzuak eta beste) zehatz aztertzea helburu dutena. Berriz herrian, berbarako, hamabi lan talde sortu dituzte eta taldeotan ehun eta laurogei herritar inguruk dihardu, euskararen erabilera urriaren zer-nolak aztertu guran. Lezon, ostera, hamazazpi taldeetara berrehun eta berrogeita hamar biztanle inguru batu da. Edozelan ere, lan talde eta herritarren kopurua ezberdina izanik, herri bateko nahiz beste plano berbera dela ziurtu daiteke. Herri bietako planek arazo eta helburu berak dituzte. Bietan, adibidez, esku hartu nahi duten herritar zenbait ezin izaten da bileretara hurreratu, euskaldunok euskararekiko ditugun konplexu eta aurreiritziak direla, kanpo faktoreak direla, edota lehen fase honen luzera (iazko urritik aurtengo ekainera bitarte) dela kausa. Halaz ere, planaren nondik norakoak herritarren artean zabaltzeko asmoz, diseinu-fase honetan egindakoaren berri zuzena emango zaio biztanleriari.

ARDURAK BULTZATURIK. Elhuyarren laguntzaz Berriz eta Lezo herriek burutzen diharduten plan estrategikoa ez da abian den bakarria, apurka-apurka egoera bera bizi duten herriek ere euren plana diseinatzen hasi baitira. Xeheki, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako hamasei biztanleria gune (mankomunitate, herri eta auzoak, kasu) hartu-emanak izan dituzte Kontseiluarekin, eta berriki euskararen plan estrategikoak beharrezko dituen aurre-baldintzak aztertzen dihardute, planari ekingo diotenentz ebazteko. Finean, euskararen erabileraz axoldurik, udalerriz zenbaitek euskararen plan estrategikoari ekingo dio, erabilerak jasan galdialdia suspertu nahian.

ASIER BIDART



Arturo Campión

Arturoren kaiera

EUSKARAK KOTIZATUKO BALU...

Hizkuntza gutxituen eta ekonomiaren arteko harremanak. Gai hori aztertuta ondorio asko atera daitezke. Horietako bat: inbertsio gisa euskara ez da errentagarria. Euskalduntze plangintzek kostu gehiago besterik ez dakarte enpresarentzat. Beste bat: Europako Batasuneko hizkuntzen burtsa existituko balitz beste hizkuntza gutxi askok baino gehiago kotizatuko luke euskarak. Eta beste bat: euskararen sektoreak Barne Produktu Gordinaren % 2 betetzen du. Hau guztia Jose Mari Zendoiarren, EHUKo Ekonomia Aplikatuko irakaslearen "Ekonomia eta hizkuntza gutxiuak: euskararen kasua" tesian jasotakoa da.

ENKARTERRIKO MIHIAK ASTINDU NAHIAN

Gora doa euskaldunen kopurua Enkarterrin, baina bazter guztietako ezinaren topo egin dute Enkarterriko Mankomunitatekoek, euskara jakin bai, baina, hitz egiteko nagiak ugari. Nagi horiek kentzeko 1,5 milioi pezetako aurrekontua izango dute Enkarterriko AEK-k, udal euskaltegiek eta beste hainbat taldek.

EUSKAL TIPOGRAFIK ENKANTEAN

11 milioi pezetatan (440.000 libera) jarriko dira enkantean Hinrich Sachs ikertzaile suitzarrak garatu dituen euskal tipografien programa informatikoak. Softwarearen ustiapen eskubideak salgai izango dira martxoaren 9tik aurrera EAE eta Nafarroako Arkitektoen Elkargoaren egoitzan.

DEFGHIJabcdef

ABCDETTUR

abcdeopqrstz□

UPELARI ERE EUSKARAZ

Astigarragan eta Hernanin 1.200 lagunetik gora bilduko dira inguruko sagardotegietan afaltzeko asmoz. Bi helburu izango dituzte hauek: sagardo bikaina dastatzea eta baita upelari ere, euskaraz egitea. Sagardo ontziari ezezik AEK-ko ikasle eta irakasleekin euskaraz mintzatzeko aukera aparta izango dute euskara ikasleek AEK txotxi egunean, hilaren 3an.

Urrea



Nafarroako Gobernuaren astinduari behar bezala aurre ez ote diogun egin dio batek baino gehiagok. Batzuek esnatzea erabaki dute: ELA, LAB, EILAS, ESK eta CGT sindikatuek, Oinarriak, UEMA eta EHEK bat egin dute Nafarroako Gobernuko azken urteotako hizkuntza politikari erantzuna emateko.



Ikatza

"De Goya a Zuloaga": La pintura española de los siglos XIX y XX en The Hispanic Society of America. Aie honetan orrialde batzuk aurrerago duzue Bilboko erakusketa bikain honen berri. Espainia sakona dute eduki margoek. Erakusketako eskuorria eta liburua ere Espainia sakonaren adierazle dira: dena gatzeleraz dago.

